

ITSAS-POLOAK URTZEN DIRENEAN

Gizarte langileak azkeneko aldiz begiratu zuen autoan sartu aurretik. Berak etorriarazi zion anbulantzia berberari joateko keinua egin zion eta ondoren, guri luzatu zigun bere soa.

- Gizarteari eta bide batez, zuen buruei, laguntza eder bat emateko prest aurkitzen zarete. Familia baten gisara jokatzeko baduzue, dena ongi irtengo da... berak merezi du eta zuek ere, merezi duzue.

Esandakoak esanda, autoan sartu eta ziztu bizian alde egin zuen, damutuko ginenaren beldur izango balitz bezala. Aldi berean, anbulantziak bere bidea hartzen zuelarik, ordurarte bueltaka pizturik zeraman argia itzali zuen.

Ezagutzen genuen bizitza mota baten heriotzaren berri ematen ari zitzaigun.

Senideok, elkarri begiratu genion. Emaztea, burumakur, buruarekin ezetz eta ezetz egiten ari zen. Eta bederatzi urte bete berri zituzten bikiek, Joxek ikusten ez zituela-eta, atzetik imintzioka eta burlaka ari zitzaizkion.

- Usted dut ez garela izango gai Joxe zaintzeko, maitea. Hainbeste urtetan gure bizilaguna izanagatik ere, gure eguneroko martxa zapuztuko du. Gure eta bere erritmoak ez direlako berdinak...-xuxurlatu zidan emazteak.
- Baina bakar bakarrik gelditu da mundu honetan, laztana. Ezin dugu besterik gabe, zahar-etxe batera eraman dezaten utzi. Merezi du zaindua izan da...
- Entzuten duzue? – Joxeren arrabotsak gure xuxurlekin amaitu zuen.

Bere etxeko ataritik, gure etxeko atera zetorren. Hamar pausu eskas, gure arteko distantzia izugarriak ezerezean uzteko. Hamar pausu eskas, elkarregana hurbiltzeko pausurik egin ez genuenoi, bere gertutasuna adierazteko.

- Entzun zer, Joxe?

- Ixiltasuna. Gehiegizko ixiltasun madarikatu hau. Lehen, *bizitza* somatu eta entzun zitekeen gure baserri inguruetan eta orain... soilik, bi hankeko bizidunak geratzen gara inguru hauetan.

Buruarekin, gu geunden lekutik haratago zerbait zegoela adierazten zuen mespretxuzko keinu bat egin zuen, ondoren berearekin jarraitzeko asmo osoz.

- Autopista deitzen dioten errepide malapartatu hori gure ondoan eraiki zutenetik, zerua beltzagoa da autoek jariatzenduten isuriengatik... txorrotxiorik jada ez dut entzuten. Zeruan hegan zebiltzanak, bueltarik gabeko beste zeru batera bidali ditugu denon artean.

Bikiak, isilik egoteko gogo gutxi erakutsi zuten hasieratik.

- Baina orain, bost minututan hirian gaude ordea! Lehen, ia ordubete behar izaten genuen leku berera iristeko!
- Iritsi, nora ordea? Porlanezko baso horretara? Eta bidean gozatzen zuten guztia ahortzi duzue? Beti kantari joaten zineten autoan txikiagoak zinetela... orain berriz, zuen pantalla horietatik ez duzue bururik altxatzen!

Hala zen, bai. Jaio zirenetik ezagutzen zituen bikiak Joxek. Bere baserria eta gurea parez pare zeuden eta bere garaian, ea atsolorrik egin behar genuen galdezka etorri zitzaigun, bikiak jaio berritan. Ez ginen gai izan gure ezjakintasunaren berri emateko eta halakoak *aintzina* gauzak zirela esan genion.

Horregatik agian ere, besteak beste, gure arteko gauzek ez zuten ordurarte aintzina egin.

Betidanik ezagutzen genuen Joxe, baina zinez, ez genekien nor zen. Gure inguruko paisairen zati zirelako bera, bere baserria...eta bere umore txarra. Beti alboan egona zelako, alboratu izan genuen. Bere emaztearekin bizi zen, hura ere ez oso adeikorra bide batez esanda, eta euren arteko bidean, ez dute inoiz seme-alabarik eduki. Eta orain, laurogehi urteak bete berritan, eta berriki alargundu zelarik, gure etxera etortzea edo zahar-etxerako bidea hartzea, beste hauturik ez zitzaion gelditu.

Alarguna, ea bere eta gure bizimodu berriarekin ezkontzen zen ikusi beharrean ginen handik aurrera.

Hasierako egunetatik, goiz-goizetik berandu izaten jarraitzen zuen Joxerentzat. *Beti garaiz zabiltzate berandu esnatzeko!* Oihukatuz esnatzen gintuen gelaz gela familiakook. Baserriko oilarraren kukurrukuak oilartzen zuen Joxe bere goizeko dianaren jardunean.

Baina, langile peto eta diziplinatuaren gandorarekin, gosaria prest jarrita izaten genuen mahaian bueltan jartzen ginenerako. Produktu naturalez osatutako gosariak, guri artifizialak egiten zitzaizkigunak.

Mahaian jazarri eta aitaren egin ostean, aitaren batean hasiko zen bere eguneroko erretolikarekin.

- Abuztua amaitzeko aste pare baten faltan, uso-pasa ikaragarria ikusi dut zeruan. Aurten, San Jose loreak otsaila hasierarako loretan zeuden. Beste balea bat agertu da Gipuzkoako kostaldean, eri eta galduta... zer gertatzen den zuek ulertzen duzue?
- Mundua aldatzen ari dela, Joxe! Inoiz baino mundu errezagoa daukagu bizitzeko egungo aurrerapen guztiakin, eta horrek guztiak ordaindu beharreko prezio bat dakar berarekin! Mundua, gaurko mundua, ulertzen saiatu beharko zenuke...

Halakoetan, aldartea azkar iluntzen zitzaion Joxeri.

- Mundu errazagoa? Sekula baino jende gehiago ikusten dut triste...eta batez ere, burumakur, mugikor txatxu horiei begira!

Eta apaizen gisara, behatza altxata, berean jarraitzen zuen.

- Zenbateko prezioa ordaintzeko prest aurkitzen gara? Gure lurreko pribilejio asko ez ditugu ordaintzen...baina erne, ezer ez delako doan ateratzen!

Bere horretan, aho bete hortz utzi gintuen lehenengo egunetik. Eskolatu gabekoa izan arren, erabat jakitun zelako Joxe. Horregatik, inork ez ziolako sekula ere esan zer ikusi behar zuen, guk ikusten ez genuen guztia ikusteko gai zen.

Ikusteko moduak eta erak ere, eraiki eta irakatsi egiten direlako.

Oheratu ere, oiloekin batera egiten zen. Udako ilunabarraren argi printzetan, "gabon" esanda azkar asko hartzen zuen oherako bidea.

- Baina, Joxe, egunaren zati handi bat oraindik probesteko parada izanda, zu jada ohera?
- Ametsetan goxo egotea, ez al da ba eguna probestea?
- Ametsak bizi egin behar dira, ordea!

Eta hark, betilun, errematea.

- Emaztea joan zaidanetik, amesgaiztorik gehiago ez izatean datza nire ametsak.

Eta behin eta berriro errepikatzen zen hizketaldi haren ostean, ohera joaten zen gu hits eta zer esan ez genekeela utzita.

Baina beti harritzeko motiboak ematen zizkigun: burua ilargian zeukalako zen horren arrazionala bere ekintzetan. Ilargiaren etapa ezberdinei begira, mozten zituen buruko ilea edo baserri ondoko sastrakak. Eta baita fruitu eta barazki ezberdinak ere ondoko soroan erein.

- Mundua aldatuko zen baina ilargiak behar den lekuan egoten jarraitzen du...

Badaki noiz, non eta nola landatu behar diren garaian garaiko produktuak, kontsumismo itsu baten produktu gu bihurtu ez gaitezten. Berak dion moduan, produktu frexkoak ez direlako *hozkaileen hainbat astez egoten diren produktuak. Jatekoek, frexkura behar dute, ahal bada goizeko ihintza.*

Telebistaren aurrean, ez zuen denborarik pasatzen. *Telebista, munduari ixten diogun leihoa da* errepikatzen zigun ase arte. Irratiaren zale sutsua zen, ordea.

- Soinuz inguratuak bizi zarete eta entzuten ez dakizue...-egiten zigun errieta.

Erabateko arrazoia zuen horretan ere. Uneoro, abestiz inguratua ikusten nuen nire burua, baina inoiz baino musika gutxiago entzuten nuelakoan nengoen. Ez ginelako gai, gelditu, pausatu eta musikaz gozatzeko. Presaren konpasean eta axolagabekeriaren doinuaz lagundurik, erraz erortzen ginelako ezerezaren eta hutsaltasunaren melodian.

Baina irratian entzun zuen albiste batek, bere ezkortasunetik atera zuen. Greta izeneko neskato bati mundua suntsitzen ari ginela entzun zionean, zur eta lur gelditu zen.

- Nor da irratiko neska hori?- galdetu zidan.
- Etenik gabe hizketan dabilen hori?
- Ez! Hark ez du soilik hitz egiten...hark, esan egiten du.

Egun hartan, begietara begiratu nionean, hunkituta nabaritu nuen. Ez nuelako sekula ere horrela ikusi. Hainbeste urtetan eraiki zuen bere altzairuzko geruza, bertan behera jausi izan balitz bezala zen. Egoera, bere onera etorri zedin saiatu nintzen.

- Ba, buruarekin hitz egiten duen nerabe bat da. Modan dago egun aldaketa klima...
- Ez! Bihotzarekin esaten du hark esaten duen guztia... hizkuntza berean ari ez garen arren, ulertzen diot. Eta horregatik iristen da jendearengana...

Arrazoia eman beharrean aurkitu nintzen. Neska honek, hain gaztea izan arren, bere burua aurkitu duelako. Hasteko, aurkitu eta ondoren, are zailagoa dena: topatu eta kokatu. Naturaren Babel Dorrean mila hizkuntza topatu litezkeen arren, lenguaia bakarra delako: ardura eta errespetuarena.

Errespetuaren hizkuntza delako gizakiok naturalki erabili dezakegun esperanto bakarra, harremanak sortzeko orduan.

Gogoan dut, bere ahultasunaren jabe egin zenean, umorearen bidez ezkutatu nahi izan zuela.

- Suediako Greta bat ezagutu nuen orain dela urte asko, famatu egin eta telebista guztietan ateratzen zena: Greta Garbo. Eta neska honek, hamarkada batzuk geroago, *garbo*-dun Greta izaten jarraitzen du, antza...

Bere umorearekin bategin ahala, Joxerekin txango motzak egiteari ekin nion, gure baserrien bueltan. Hark, baserria duelako bizileku baina bere bizitokia, benetakoa, natura duelako. Joxeren ortzimugak berde kolorea du, bere zerua, lurtarra delako. Basoan eta mendietan galtzen denean soilik, topatzen baitu bere burua.

Umorearen bidetik, barre algaren arteko bidezidorrak ezagutzera eramán gaitu gure harremanak. Berritik gutxi duen harremana, baina egoera honek berritu egin duena.

Eta antza, biziberritu ere bai.

Bere sekretuaren berri emateko probestu zuen txango haietako bat.

- Badakizu? Buruan txoriak ditut...

Harrituta eta beldurrez begiratu nion, Alzheimerren lehen zantzuekin topo egin ote zuen?

- Beno, Joxe, adinarekin zerikusia izan dezakeen sinto...-lasaitzeko saiakera egiten hasi nintzen.
- Ze adin eta ze demontre! Txikitatik datorkit joera, ume umetatik...

Ezin nion ulertu. Eta nire aurpegian irakurri orduko nire ideien noraeza, segituan azaldu zidan.

- Txoriak gustuko ditudala, motel! Euren txorrotxioak soilik entzunda, bakoitza zein motatakoa den asmatzeko gai naizela!
- Txoriak, beti txori, ezta? Denek dituzte lumak eta denek egiten dute hegan...

Ironiazko begirada luzatu zidan, arnasa mozten duen hoietakoa.

- Kotxeen markak ederki dakizkizu ba! Niretzat, denak dira "kotxeak"... txorien kasuan berriz, zapelaitzak, kukuak, txantxangorriak, arabazozo pikartak eta beste mila espezie

ezagutzen ditut. Badakit noiz eta non egin dituzten habiak eta haiek, euren modura niri hitz egin eta esaten didate ezagutu dudan mundu bat amaitzen ari dela!

Zer esan ez nekiela utzi ninduen enegarren aldiz. Bide batez, berearekin jarraitzeko aukera ederra eman nion.

- Honekin, beste mundurik ez daukagula esan nahi dizut. Hizkuntzekin bezala, gure pasaia eta animalien aniztasunarekin amaitzen ari gara. Ikusi nahi ez duten begiekin begiratzen darraigun bitartean jai daukagu. Eta zuk, zure erantzunkizunaren zatia onartu behar zenuke.
- Joxe, ez naiz ume moko bat eta ez dut zure errietarik onartuko!
- Ba, ardurak onartzeaz ari naizenez, ez naiz errieta egiteaz ari. Hezkuntzan jarri beharko zenuke fokoa... baina noski, pantallak beti piztuta baina argirik inondik inora ikusten ez duen belaunaldi batekoa zara, ezta?
- Hezkuntzan? Gure bikiak, etorkizunean unibertsitaterik onenetara bideratu nahi ditugu!

Buruarekin ezezka ari zen, jada.

- Ez naiz ikasketez ari, hezkuntzaz baizik. Ama naturarekin izan behar dugun errespetuaz...bestela, etorkizuneko unibertsitaterik ez da egongo!

Nigandik aldendu eta bere gomendioak hausnartu nitzan utzi zidan. Ondoren, bizkarretik oratu eta "Xorieri mintzo zen" txistuka etxeratu ginen biok.

Berdinak izaten jarraitzen dugun arren, ez gara berberak. Joxe gure etxera etorri zenetik, gure mundua txiki geratu zaigu. Izan ere, gure etxe ondotik harago, beste unibertso bat dago. Edo hobe esanda, beste unibertso bat gertatzen ari da.

Gure munduak, ezagutzen dugun munduak, inoiz ez dio hasteari uzten baina neurri batean, agortzen ari da. Edo hobeto esanda, agortzen ari

gara. Azken garai hauetan, sortzen eta sortzen ari garena, ezereza delako. Hondakinak etengabe sortzeagatik, benetako zaborra gizakiok gara. Baina aldi berean, hondakinak bizigai bihurtzeko ere gai garen pertsonok, gizaki izaten ikasi beharra daukagu berriro.

Gizatiarrago jokatzeko, egunero egunero gudan sortzen eta sortzen ari den mundu berri horrekin.

Gure etxean, aldaketa klimatikoa gauzatu da. Beste giro bat bizi dugulako. Neguan, barru-giroa egiten duenean lau pareten artean egoteko, gure ikusmira inoiz baina zabalagoa bihurtzen da Joxek kontatzen dizkigun kontuekin. Urtero elurra egiten zueneko garaiak, lantegiak oraindik industria ez zirenean bilakatu eta ez zutenean kutsatzen, animaliak gizakion bizitzetan nola txertatuak zeuden...milaka aintzinako istorio eta pasarte kontatzen dizkigu. Etorkizun izan nahi duten aintzinako pasarteak, baldin eta mundu hau errespetatzeko gai bagara.

Etorkizuna present daukagula, alegia.

Eta gure arteko izotz plakak urtu dira, elkar errespetatzen dugulako. Gure arteko oraingo ur bareek, bi aldeon arteko zubi egiten jarraitzen dute; itsasoa bezain zabalak diren bere kontakizunetan. Itsasoa errespetatzen jarrai dezagun, bere hondar alea jartzen du Joxek, mundua bere hondarretara eraman ez dezagun.

Egia da, adinarengatik, Joxeri pausoa laburtu zaiola. Baina horren truke, bidaia luzeago bati ekiteko prestatu da, gurekin hurrengo urteetan egiteko gauza izango dena. Joxe, ez delako zaharra, adinduna baizik.

Eta guri irakatsi digun modura, adimenduna.

Eta orain, itsas poloak urtuarazi ditugun honetan, gure etxe barruko koordenadak aldatu dira. Iparra, egoa, norberaren egoa; bazterrean uztean datzala ikasi dugu. Eta urek beren bidea egiten jarrai dezaten utziko diegula zin egin diegu gure buruei, elkarbizitzaren urek euren bidea topatzen dutelako mesfidantzaren dikerik tartean ez badiogu jartzen behintzat.

Guk ere, bide batez, berotegi efektua pairatzen jarraitzen dugu zorionez gure etxean. Giroa epeldu egin da gurean, eta lehengo giroa, orain atmosfera da. Eta zoriona kutsatzeari ekin diogu elkarri, soilik garrantzia duenari begiratuta: bizitzari eta bizitzeko moduari.

Bizitzaren garrantzia alde batera utzi eta bizitzaren garraiantzia bizi dugulako: ahanztura.

Eta batez ere, guk Joxe baino, Joxek gu zaintzen gaituela jakitun gara.

Zaintza, naturatik datorkigulako eta aldi berean, naturala delako.

Joxe bera bezala.

XORIÑO

Ermuko Udal Liburutegia / Biblioteca Municipal de Ermua